


## FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, gure proiektua aurrera eramateko taldekideek egingo ditugun jarduerak aipatuko ditugu. Hasteko, gu izango gara diseinuak asmatuko ditugunak. Esan bezala, gure produktua hainbeste pertsoneri dago bideratua, non diseinu ezberdinak egingo ditugu. Lepokoak, urrezko eta zilarrezko kate bat izango dira, baina apaingarri desberdinekin.



Hortaz gain, webgunea guk bideratuko dugu. Bertan, gure bezeroei sortutako zalantzak argituko ditugu, baita hobekuntzak kontuan izango ditugu ere. Gainera, sare sozialen erabilera guk eramango dugu, eta bertan bideoak, inkestak eta beste hainbeste gauza igoko ditugu. Modu honetan, gure bezeroen gertutasuna lortuko dugu, beraien iritzia kontuan izanik. Gure marka sare sozialetan bilatu ahal izateko @arex.jewellery izenarekin bilatu beharko gaituzue.



Era berean, behin produktuak gure lokalera iristerakoan, lepokoa modu egokian kutxa baten barruan sartzea izango da gure betebeharra. Gero inprimagailuen etiketa bertan txertatu eta prest dago GLS garraio enpresaren bitartez, bezeroen etxera iristeko.